

Itzulpena, kulturen elkargune*

(Kirmen Uriberen eta Harkaitz Canoren
poesia georgieraz)

VLADIMER LUARSABISHVILI

Georgiako Tbilisiko Ilia Estatuko Unibertsitatea

Itzulpena: Karlos del Olmo

0.

Itzulpena kulturen elkargune bihurtzeko baliabide emankorra den aldetik ikertzea darabilt ikergai artikulua honetan. Egungo euskal literatura itzuliaren esparruan egin nuen ikerlan hau, eginkizun horretan eman baititut nire azken bost itzulpen urteak. Itzultzean —nahiz euskal narratiba (Juanjo Olasagarre¹ eta Kirmen Uribe²), nahiz euskal poesia (Gabriel Aresti³, Kirmen Uribe⁴), nahiz literatur teoria (Jon Kortazar⁵)—, gogoeta egin dut euskal kultura beste kultura arrotz batera transmititzearen berezitasunez; izan ere, bi artikulua argitaratu ditut kontu horre-

* Artikulu hau METAPHORA ikerketa-proiektuan egindako lanaren emaitza da. Proiektuak FFI2014-53391-P erreferentzia du, eta Espainiako Ekonomia eta Lehiakortasun Ministerioaren Ikerketa, Garapena eta Berrikuntzarako Estatu Idazkaritzak finantzatua da.

1. Juanjo Olasagarre. *Las maletas imposibles*. Gaztelaniatik euskarara itzulia. Gernika argitaletxea, 2010. ISBN: 978-5-91600-006-1.
2. Kirmen Uribe. *Mientras tanto cógeme la mano*. Gaztelaniatik georgierara itzulia. Ilia Estatuko Unibertsitatea. 2013. ISBN: 978-9941-18-154-2.
3. Gabriel Aresti. *Harri eta herri*. Gaztelaniatik georgierara itzulia. Ilia Estatuko Unibertsitatea. ISBN: 978-9941-18-067-5; Gabriel Aresti. *Harrizko herri hau*. Gaztelaniatik georgierara itzulia. Ilia Estatuko Unibertsitatea; *Euskal Harria*. Gaztelaniatik georgierara itzulia. Ilia Estatuko Unibertsitatea.
4. Kirmen Uribe. *Bilbao-New York-Bilbao*. Gaztelaniatik georgierara itzulia. Ilia Estatuko Unibertsitatea. ISBN: 978-9941-18-155-9, 2013.
5. Jon Kortazar. *Euskal literaturaren historia*. Gaztelaniatik georgierara itzulia. Ilia Estatuko Unibertsitatea. ISBN: 978-9941-18-068-2; Jon Kortazar. *El poeta Gabriel Aresti (1933-1975)*. Gaztelaniatik georgierara itzulia. Ilia Estatuko Unibertsitatea, 2012. ISBN: 978-9941-18-075-0.

taz.⁶ Orri hauetan zirriborratzen ahalegindu naiz bestela ulertzen dudala itzultzea, *interpretazioa*, *transdukzioa*, *negoziazioa* eta *elkarrizketa* baititu ezaugarri prozesu horrek. Eta, paratzera-koan, harroin hartu ditut Kirmen Uriberi eta Harkaitz Canori itzuli dizkiedan poema batzuk. Esker oneko natzaie egileei, haien poemak itzuli eta argitaratzeko baimena eman didatelako.

Hiru zati ditu artikulu honek. Atal honetan egindako sarrera hitz laburren ondoren, literatur itzulpenaren berezitasunak aztertuko ditut, elkarren ezberdin samar diren kultura bi edo gehiago batzeko lurraldetzat jotzen dudala; bigarrenean, gogoetagai erabiliko dut egin dudan itzulpen lana —aukeraturiko egileen testu poetikoak euskaratzea—; hirugarrenean, aztergaiaren ondorio orokorrez arituko naiz.

1.

Komunikazio ekintza bat da itzulpen literarioa, eta hainbat itzulpen tresnaren bitartez gauzatu da, banakoei kultura arrotz, urrun baten berezitasunak ezagutarazten saiatzeko. Tresna horiek bitarte direla, kultura baten bereizgarritasuna beste kultura baten esku jartzen da. Bi kulturen osagai dira, hortaz, itzultzaileak eduki eta erabili beharreko gaitasunak, irakurria en-telegatu egin behar duelako ulertua transmititu aurretik. Literatur gaitasun halako baten jabe izan behar du itzultzaile literarioak, ekoizlea baita hartzailea izateaz gain, batera (Aguiar e Silva, 1977; García Berrio, 1979; Albaladejo, 1992), eta hainbat motatako elementuak lortu behar baititu ekoizpenean; besteak beste, erretorikoak (Arduini, 1996, 2000; Chico Rico, 2001). Eta hortxe agertzen da jatorrizko testuari fidel izan beharraren kontua, irakurri eta ulertu ondoren jatorrizko testuaren edukia interpretatzen hasten baita itzultzailea. Horra zergatik tratatu itzulpena *interpretaziotzat*, *transdukziotzat*, *negoziaziotzat* eta *elkarrizketatzat*; horrek, orobat, kultura arrotz eta ezberdinak elkarrengana hurbiltzea eragiten du eta.

Itzulpena *interpretazio* bat da erreprodukzio edo errepresentazio funtzioa duelako. Errepresentazio funtzioaren bidezko interpretazio formen artean, interpretazio dramatikoak, interpretazio musikala eta «testu bat jatorrizkoa ez den beste hizkuntza batean» itzultzea aipatzen ditu Emilio Betti jurista italiarrak (1975: 55). Zera dio Tomás Albadalejo irakasleak gaiari buruz: izaeraz antzezlanak, itzulpenak eta musikak oso ezberdinak ematen badute ere, aditu batean, alderdi komun asko dituzte, musika lan batek edo antzezlan batek errepresentazio halako bat behar baitu mamitu ahal izateko; lehenengo kasuan, soinuek partitura ordezkatzan dutenean, eta, bigarrenean, testu dramatiko idatzia ikus-entzuleengana proiektatzen denean (2006: 2-3):

Oso esanguratsua da Bettik erreprodukzio edo interpretazio funtzioan elkarren ondoan ezartzea itzulpena, antzerki errepresentazioa eta musika lanak, eta interes handikoa, hiru forma horiek, elkarren ezberdintasunekin batera, ezaugarri komun asko baitituzte, eta horiek hobeto ulertzen

6. Luarsabishvili, Vladimer (2011): «Nire Aitaren Etxea defendituko dut» Arestiren poemaren itzulpena dela eta». *Senetz* 41, 219.-241. or. [http://www.eizie.org/Argitalpenak/Senez/20110824/Luarsabishvili]; Luarsabishvili, Vladimer (2014): «Gabriel Aresti en georgiano – reflexiones del traductor», *Euskeru* 2014, 2.

laguntzen digute, bai eta komunikazio modu eta prozesuen multzoan kokatzen ere. Musika lan bat jotzea errepresentazioa da, benetako soinuek partitura ordeztzen baitute; musika hizkeraren grafiek kodeturiko obraren ordezkari egoten da jotzearen emaitza. Antzezpena errepresentazioa da antzezlanaren bertsio idatzia ordezkatzeko duen neurrian, haren ordezkari proiektatzen baita komunikatiboki ikusleengana (zehazkiago, ikus-entzuleengana), haiek dira-eta antzeztzen den lanaren hartzaileak.

Izan ere, gogora datozkit Julián Marías filosofoaren hitzak, Unamunoren antzerkiaren gaiaz jardutean, «antzerkiaren aldetik jenialak diren» antzezlanak agertokian antzeztu beharra aipatzen baitzuen (1948: 67). Era horretan, *errepresentazioa* da itzulpen prozesuaren ezaugarrietako bat.

Testuak itzultzean —alegia, interpretazio bidez eraldatzean—, itzulpenak *transdukzioaren* tasuna bereganatzen du, Lubomír Doleželek ulertzen duen modura (1986). Literatur testua egile horrek «transmisio kateak» izenekoetan integratuta dagoenez gero, oso eginkizun garrantzikoak betetzen du ekoizte diskurtsiboan kateetako transdukzio literarioak (Doležel, 1990).

Transdukzioa eskuratzeko, beharrezkoa da zenbait *negoziazio* eragiketa mamitzea, literatura itzultzaileak irrika duena lortzen baitu zerbaiti uko egitean (Eco, 2003). Hala, itzulpen estrategia bihurtzen da *negoziazioa*, zeinaren bitartez itzulpen aukeren artean hauta daitezkeen, testuaren eta itzultzailearen arteko elkarrizketari esker.

Sobera ezaguna da *elkarrizketak* literatur ikerlanetan duen garrantzia. Kasuetako bat da elkarrizketa testuaren barruan dagoeneko —horri buruz, kronologian zelan edo hala galdutako gabe, Bajtin (1968), García Berrio (1978-1980), Bobes Naves (1992) eta Zavala (1994) egileen testuak irakurri beharrekoak dira—; baina, gainera, testuen baitan egoteaz gain, testuon eta hartzaileen arteko elkarrizketazko harremanari ere arreta berezia eman behar diogu. Elkarrizketan dihardu literatura itzultzaileak jatorrizko testuarekin, xede kulturen interpretatu ahal izateko. Hala, mezu kodetu bat jasotzen du jatorrizko testuaren hizkuntz gaitasunen jabe ez den hartzaileak, literatura itzultzaileak eginiko *transdukzioari* esker. Hortaz, itzulpenaren behin betiko ezaugarriak dira *interpretazioa*, *transdukzioa*, *negoziazioa* eta *elkarrizketa*, hartzaileari bidea ematen baitiote jatorrizko kulturen tasunak ulertzeko, hau da, kultura ezberdin bi edo gehiago elkarrengana hurbiltzea errazten dute.

2.

Nahikoa jakingarria da ikustea itzultzaileek zer zioreratik aukeratzen dituzten testu jakin batzuk itzulgaiztat. Gogora ekarriko dugu hemen Lawrence Venuti itzulpenaren historialariaren testu klasikoa, non adierazten duen testu jakin batzuk aukeratzea baldintzatzeaz gain literatura itzultzaileak zer teknika erabili behar duen ere erabakitzen dutela argialetxeek (Venuti, 1995). Izan ere, baliteke lansari bat jaso eta lana argiratuta ikusteko segurtasunak itzultzailearengan *negoziazioa* hain ezaguna ez den, minoritarioa den kulturari erreparatzeko nahimena piztea. Eta aipaturikoari gehitzen badiogu gobernu batek herri bateko kultura hedatzea sustatzeko

hainbat modu erabiltzen dituelakoa, esandako guztiak eginkizun garrantzizkoa izan dezake hain ezaguna ez den kulturarenkiko interesa handitzean.

Niri dagokidanez, gertaerak aipatu ekintzen bidetik joan ziren. Roberto Serrano adiskide eta lankideari zor diot Euskal Herriarekin lehen aldiz topo egitea, hainbat urtean Amurrioko Zaraobe institutuaren eta Tbilisiko Allemagne ikastetxearen arteko kultur trukean parte hartu baitzuen. 2006. urtean etorri nintzen lehen aldiz Euskal Herrira, programa hartako partaide moduan. Eta, kultur gaitan interes handia nuenez gero, liburu dendetara joaten nintzen sarri-tan, garai hartan erabat ezezagun nuen herri bateko literatur kontuak hobeto ezagutzeko.

Apur-apurka, Euskal Herriko hainbat alderdi ezagutzen hasi nintzen: historia, literatura, tradizioak. Zenbait alditan egon naiz Euskaltzaindian; neure itzulpenak ere badaude hango liburutegian jasota, eta harro sentiarazten nau horrek. Roberto Serrano eta Jon Kortazar euskal literaturako irakasleen lagun izateari esker, hobeto ezagutu ahal izan dut euskal literatura, Euskal Herriko gertaera historikoei estu-estu lotua bera. Aldi berean, Euskal Herriaren eta Georgiaren arteko harremanen historiaren berri izan dut; besteak beste, Georgiako literaturako poemarik garrantzitsuena, *Zaldun tigrelarruduna*, euskaratu zuelako Xabier Kintana euskaltzainak Sergei Serebryakov poeta eta ikertzailearen laguntzaz.⁷ Ez da ahaztu behar euskal hizkuntza eta literatura irakasten zutela Tbilisiko Estatuko Unibertsitatean 1976tik, bizi osoa euskal gaiak ikertzen eman zuen hispanista Yuri Zitsar irakasle gonbidatuak zuzendurik.⁸ Horrek denak berehala piztu zuen nigan euskal idazleak espainieratik georgierara itzultzeko interesa. Urtea joan, urtea etorri, euskara ikastea espero dut, zuzen eta artez itzuli ahal izateko euskaratik georgierara.

Aresti izan zen euskal literaturarekin izan nuen lehen topaketa. Gaur arte, Gabriel Aresti dut neure pentsaera (ez bakarrik literarioa) aldatu zuten pertsona ospetsuetako bat. Bizitza poesia modura, bizitza borroka modura eta poesia borroka modura ikusteak Arestirengana hurbildu ninduen lehen orrietatik, eta, harrezkero, ez nau abandonatu. Arestiren ostean, Jon Mirande irakurri nuen; gero, Gabriel Celaya, eta, hala, egungo euskal poesia ezagutu arte jarraitu dut irakurtzen, ene ustez, egungo munduan den poesiarik bizienetako, esperimentatuenetako eta gizatiarrenetako bat baita.

Lehenik eta behin, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren diru laguntzei esker gauzatu nituen itzulpenak, eta, gero, Etxepare Institutuaren urgazpenari esker. Gernika argialetxeari eta Iliako Estatuko Unibertsitateari esker ikusi dute argia itzuli nituen euskal literatur lanek. Eta garai horri dagokio egun egiten dudan hausnarketa, literatur itzulpena kulturen elkargunea delakoa.

7. *Zaldun tigrelarruduna* / Xota Rustaveli; Xabier Kintanak georgieratik itzulia; irudiak: Mihai Ziczi. — Madril: Santillana; Etxebarri: Zubia, 1999, 207. or.; 22 cm, L.G. M. 27048-1999, ISBN: 84-8147-193-3.

8. Zitsar irakaslearen bizitzako aldi horretaz, ikus: «Lehenengo eta gaur egungo euskaltzaletasuna Georgian eta Errusian», Gernika, 3-4 zk.; Zitsar irakaslearen lanaz eta bizitzaz: www.gernika.ru/zitsar-biblioteka.

Minoritarioa da euskal kultura, georgiarra legez. Kultura minoritario batetik natorrenez gero, argiro uler dezaket hura hedatzearen garrantzia. Baina kantitatez urria izatea ez da kalitatez pobrea izatearen balioidea. Literatura bakoitzak, sortzeko prozesuan, loraldiak eta makalaldiak izaten ditu, eta, herri txikien literaturen kasuan, goraldiak hil edo bizikoak dira. Aurreneko euskal testu inprimatua 1545. urtekoa den arren, egungo euskal literatura, zalantzarik gabe, gure garaiko literaturarik garrantzitsuenetako bat da, eta horixe izan zen euskal literatur testuak georgierara ekartzera adoretu ninduen eragile azkena.

Nire itzulpenak aurkeztu eta iruzkindu aurretik, adierazi nahi dut zergatik aukeratu nituen bi euskal poetaren poema horiek. Kultura, herri baten historiaren zati banaezina den aldetik, harekin batera eratzen eta garatzen da. Hara hor zer dioen horretaz Wolfgang Welsch-ek (2008: 110):

Lehenik eta behin, eta Herderen arabera, herri baten bizitza zehaztu behar luke kultura batek, orokorrean nahiz partikularrean, eta objektu bakoitza kultura *horren* parte nahasezina bihurtu: oso kontzepzio sinplista da hori. Bigarrenik, *herri* baten kultura izan behar du beti kulturak —Herderen arabera—, herri batez izatearen *lorea*: herri bati loturik dago kontzepzioa. Hirugarrenez, kanporanzko banaketa estu bat ondorioztatzen da arestian esandakotik; kultura bakoitza, *herri bakar baten* kultura den aldetik, bereizi egiten da, eta *beste* herri batzuen kulturatik banatzen: kontzepzio separatista da hori.

Hala, bizitzaren ezaugarriak behinenak gordetzen ditu kulturak, dinamikoa ez ezik egunerokoa ere bai baita. Eta, irakurle georgiarrari Euskal Herriaren berezitasun historiko eta garaiakideak are biziago egiteko, bi faktore ezinbestekoren garrantzia (itsasoa eta familia) adierazten dituzten testuak aukeratu ditut.

Kirmen Uriberen poesia

ტექნოლოგია

წერა და კითხვა არ იცოდა ბაბუამ, თუმცა
ცნობილი იყო

იმ ამბებით, რასაც ყვებოდა.
წმინდა გიორგის ფუგასს ანთებდა
შთამომავლობით გარშემორტყმული.

მოხდენილი და დახრილი იყო
ხელწერა მამის.
მკვეთრად ქარგავდა ფურცელს, თითქოს

ხატავდა ფიქალს.
 დღემდე შემომრჩა სამხედროდან გამოგზავნილი
 ღია ბარათი:

„აი, კარგად ვარ, შენც ხომ კარგად ხარ,
 მომწერე კიდევ“.

ჩვენ ელექტრონულ
 წერილებს ვგზავნიო.

ასეა: სამი თაობის გზაზე
 შემოვივინეთ დამწერლობის გრძელი ნაკვეთი.

მაგრამ შიში და წუხილი დარჩა
 ოხვე იგივე,
 ასეც იქნება მომავალშიც:

„აი, კარგად ვარ, შენც ხომ კარგად ხარ!“

TECNOLOGÍA

Mi abuelo no sabía leer, tampoco
 sabía escribir. Sin embargo, era conocido
 por las historias que contaba. Él encendía,
 rodeado de críos, las fogatas de San Juan.
 La caligrafía de mi padre era inclinada, elegante.
 Tejía el papel con precision,
 como si esculpiera sobre la pizarra.
 Todavía tengo la postal que envié desde la mili:

“Yo bien, tú bien,
 mándame cien”.

Nosotros mandamos
 mensajes electrónicos.

Es cierto: en tres generaciones hemos recorrido
 un largo trecho en la historia de la escritura.

De todas formas, las preocupaciones, los miedos
 son los mismos de siempre, y lo seguirán siendo:

“Yo bien, tú bien...”

TEKNOLOGIA

Aitonak ez zekien irakurtzen,
 ez zekien idazten. Hala ere kontalari ezaguna zen
 herrian. Berak pizten zituen,
 hurrez inguraturik, sanjuan suak.
 Aitaren kaligrafia etzana zen, jantzia.
 Doiki ehuntzen zuen papera,
 arbela zizelatuko balu bezala.
 Mahaian dut soldaduzkatik igorritako postala.

“Yo bien, tú bien
 mándame cien”.

Gure sasoian mezu elektronikoak
 bidaltzen dizkiogu elkarri.

Hiru belaunalditan, egia da,
 idazketaren historia luzea igaro dugu.

Dena den, kezkek, beldurrak
 beti-betikoak dira, eta izango.

“Yo bien, tú bien...”

Labur-labur kontatzen du hiru belaunaldiren historia Uriberen poema horrek. Bertsio zabalago halako bat ematen digute *Bilbao-New York-Bilbao* eleberriko orriek. Georgiako irakurle batek hartan datzan ideia nagusia ulertu ahal izateko, noraezekoa da Euskal Herriko bizitza historikoari buruzko ideiarene bat izatea. Ulertu beharrekoa da nolako garrantzia duten euskaldunen bizitzan itsasoak eta senideen arteko maitasunezko harremanak, hainbat zio direla kausa banatuta badaude ere: soldadutza, arrantza edo beste edozein. Eta, bizialdiaren amaieran, aitona umez inguratuta egoten da, eta, are zahartzaroan ere, haren bizitza itsasoa-rekin egoten da harremanetan. Baina, neure ikuspegitik, Uribek azpimarratu nahi du pertsonen kezkak eta beldurak berdin-berdinak direla denborak eta lanbideak gorabehera. Poema modu horretan amaituta, Uribek ihes egiten dio ohiko euskal gaiak jorratzeari; alderantziz, hura erabiltzen du balio batzuk lantzeko, eta horiek berdin dira erakargarri irakurle euskaldunarentzat, alemaniarrarentzat, ingelesarentzat eta beste edozein nazionalitatetako irakurle batentzat. Hain zuzen ere, horrexegatik aukeratu dut poema hori itzulkizun; bateko, euskal bizitza erakusten digu; besteko, munduko literaturako gai unibertsal bat erakusten du: pertsonen arteko harremanak.

არ შემოდგომა ავირჩიო

არ შემოდგომა ავირჩიო
ზღვა ანდა მიწა.
მათი შემერთველ ხაზზე ბედნიერი ვარ.
ამ შავ თასმაზე, ქარი რომ არხევს.
გადაკარგული გოლიათის ამ გრძელ დაღალზე.

ზღვაში მე მომწონს მისი გული გაზრდილი ჩვილის.
ზოგჯერ შმაგი და ზოგჯერ ავტორი
შეუძლებელი პეიზაჟების.
მიწაში მომწონს მისი ხელები.

არ შემოდგომა ავირჩიო
ზღვა ანდა მიწა.
გუწევი, რომ ჩემი ალაგია ეს თხელი ძაფი,
თუმცაღა ზღვაში ვიკარგები
და მიწა მახრჩობს.

არ შემოდგომა ავირჩიო. მე აქ დავრჩები,
მწვანე ტალღებსა და ცისფერ მთებში.

NO PUEDO ELEGIR

No puedo elegir
entre el Mar y la Tierra.
Vivo feliz en la línea que las une.
En esta cinta negra que mueve el viento.
En este largo cabello de un gigante desorientado.

Del Mar me gusta sobre todo su corazón de niño grande.
A veces rabioso, a veces capaz de dibujar
paisajes imposibles.
De la Tierra, sus manos.

No puedo elegir
entre el Mar y la Tierra.
Sé que mi lugar es un hilo fino,
pero en el Mar me perdería
y en la Tierra me ahogo.

No puedo elegir. Me quedo aquí.
Entre olas verdes y montañas azules.

EZ EMAN HAUTATZEKO

Ez eman hautatzeko
Itsasoa eta Lehorren artean.
Gustura bizi naiz itsaslabarrean,
Haizeak mugitzen duen zinta beltz honetan,
Gizandi erratu bati eroritako ile luze honetan.

Itsasoarena maite dut batez ere bihotza.
Inozoa, haur handi batena bezain.
Orain temoso, orain ezinezko paisaiak
marrazten.
Lehorrena berriz
esku handi horiek ditut gogokoan.

Ez eman hautatzeko
Itsasoa eta Lehorren artean.
Badakit hari fin bat dela nire bizilekua,
baina Itsasoarekin bakarrik galduko nintzateke,
Lehorrekin ito.

Ez eman hautatzeko. Hemen geratuko naiz.
Olatu berde eta mendi urdinen artean.

Nago poema hori Uriberen aitorten poetiko bat dela. Hartan, benetako naturan tokirik ez duela nabarmentzen du egileak. Bi gai ezaugarritzen ditu: itsasoa, bateko, berezkoak ditu-eta amorrua eta ume bihotza; besteko, lehorra, ito egiten du eta. Koloreen oposizioa darabil —urdina eta berdea— zertzeladak emateko, eta,aldi berean, ezaugarriak aldatzen ditu: olatua berdea da, eta mendia, urdina. Errealitatearen harrera poetiko bat da, Uribe benetako munduan kokatzen utzi ez eta mugalde batean jartzen duena, bataren (itsasoa) eta bestearen (lehorra) artean; berberak aitortzen duenez, «hari fin» batean. Sinesmen poetiko bat delako itzuli dut poema hori.

Harkaitz Canoren poesia

12 ძველი სარდინი გადაუდებელი მოხმარებისათვის

ვით თევზის შეკვრა უნდა იყოს
ლექსთა კრებული.

ახალი, მარგი კვებისათვის,
ფოსფორითა და კალციუმით გამდიდრებული.

ან მყრალი თევზის შეკვრა იყოს,
და გვაძულოს რომ გავიქცეთ შეშინებულნი.

გაფუჭებული თევზის შეკვრა,
გაკირულ თავით, მახვილ თვალებით.

ან ერთი უნდა იყოს, ან მეორე.

ღექსთა კარგ კრებულს
უნდა ჰგავდეს
ჩვენი ცხოვრება.

12 SARDINAS VIEJAS PARA CONSUMO
INMEDIATO

Un buen libro de poemas ha de ser
como una caja de pescado.

Nutritiva y fresca, fuente de fósforo y calcio.

O descarga hedionda
que nos impulse a salir huyendo
de ella, presos del pánico,

una caja de pescado podrido y cabezas calcinadas
de dientes y ojos afilados.

Una de dos.

Y así habría de ser,
como un buen libro de poemas,
nuestra vida.

12 SARDINZAHAR LEHENBAILEHEN
KONTSUMITUAK IZATEKO

Poema liburu on batek izan behar luke
arrain kutxa bat bezalakoa.

Fosforo eta kaltzio iturri elikagarri freskoa.

Edo izu-laborriz harengandik ihesi
ateratzeko sentipena
sortzen duen deskarga

arrain usteldu, ikatzezko arrainburu,
hortz eta begi zorrotzena.

Bietarik bat.

Eta halakoa behar luke,
poema liburu on bat bezalakoa
gure bizitzak.

Arima elika dezakeen poesia halako bat da bizitza, gorputza janaritzen duen arrain kutxaren modukoa. Bi bizi aukera daude, elikagaia jateko bi aukera modu, dela goxoa, dela usteldua. «Bietarik bat»; ezer ez dago tartean. Bizitza poesiarekin erlazionatzen eta esplikatzen du Har-kaitz Canok poema labur honen bitartez, Gabriel Arestiren bidetik: bizitza eta poesia borroka baten modukoa direla, mailu bat, eta beti egoten dela modua freskoaren eta ustelduaren artean, elikagarriaren eta ikatzezkoaren artean aukeratzeko.

3.

Artikuluaren akabuan, zenbait iradokizun eskaini gura ditut kulturaren itzulgarritasunaz eta literatur itzulpenak kulturak elkarrengana hurbiltzean izan dezakeen eginkizunaz. Kultura baikoitzak ezaugarri bereziak dituen arren —sarritan, beste kultura batekoentzat nekez ulertze-koak—, kulturazko analogoak topa daitezke xede kulturan, arrotza eta ezberdina dena esplika-tzeko. Honako honetan, arrotzearen itzulpen teknika —hala deritzo Venutik— erabiltzea izan daiteke aukerarik erakargarriena eta onargarriena; testu itzulia dela ulertzen laguntzen du, ez dela irakurlearen xede kulturaren ekoizkina (1995: 148):

Foreignizing translation is a dissident cultural practice, maintaining a refusal of the dominant by developing affiliations with marginal linguistic and literary values at home, including foreign cultures that have been excluded because of their own resistance to dominant values. On the other hand, foreignizing translation enacts an ethnocentric appropriation of the foreign text by enlisting it in a domestic cultural political agenda, like dissidence; on the other hand, it is precisely this dissident stance that enables foreignizing translation to signal the linguistic and cultural difference of the foreign text and perform a work of cultural restoration, admitting the ethno deviant and potentially revising domestic literary canons.

Beste testuak ez bezala, literatur testuak itzultzean ez da begi bistatik galdu behar subjektibotasunak itzulpen prozesuan duen eginkizuna. Itzultzaileak birkodetu egiten du egileak jatorrizko testuan aurretiaz kodeturiko mezu bat. Prozesu horretan, muntaduna da irudimenaren eginkizuna (Schwab, 2008: 242-243):

Kultur harremana beti eskualdatzen da modu subjektiboan literaturan, eta, kultur jakinduriaren *itzulpen* literarioa egitean, kulturaren esperientzia subjektiboa transferitzea erdi-erdian egotea inplikatzeko horrek. Hemen, transferentzia ulertu beharra dago berbarean adierarik psikoanalitikoenean, kulturaren bereganatze subjektiboa kultur inkontzientearen irudi imajinario-fantastikoz eta proiektioz beterik egoten baita. Modu subjektibo eta estetikoan eskualdatutako kultura birkodetzearen ondorioz, eman ere daiteke literaturak ezinbesteko eginkizuna duela non eta kultur transferentziatzeko prozesuak irudikatzen.

Euskal poeten testuak itzultzean, saiatu nintzen bai edukiari bai poemen mezu semantikoa-ri fidel izaten. Noraezko deritzot jasotako testuaren kultur ezaugarriari ahal denik eta gehien eusten saiatzeari. Ezbairik gabe, onuragarriago izango da kulturak elkarrengana hurbiltzea, indarkeria etnozentrikoari saihesten eginez gero. Kultura ezberdinarekiko interesa pitz dezake atzerriko kultura arrotzat, norberaren kulturaren ezberdintzat jotzeki; gureari dagokionez, euskal kulturarekikoa, eta irrika bat sorraraz dezake interes horrek: historiagatik eta ezaugarri etnografikoengatik aberats eta bakan den kultura hori sakonago ezagutzea.

BIBLIOGRAFIA

- Aguiar e Silva, V. M. DE (1977). *Competência lingüística e competência literária*, Coimbra: Almedina.
- Albaladejo, Tomás (1992). «Aspectos pragmáticos y semánticos de la traducción del texto literario», *Koiné. Quaderni di Ricera e Didattica sulla Traduzione e l'Interpretazione II* (1-2), 179.-200. or.
- (2006). «Traducción y representación», in Consuelo Gonzalo eta Pollux Hernández (arg.). *Corcillum. Estudios de Traducción, Lingüística y Filología dedicados a Valentín García Yebra*, Madril: Arco/Libros, 31.-45. or.
- Arduini, Stefano (1996). *Retorica i traduzione*, Urbino: Università degli Studi di Urbino.
- Betti, Emilio (1975). *Interpretación de la ley y de los actos jurídicos*, Madril: Editorial Revista de Derecho Privado; Editoriales de Derecho Reunidas.
- Chico Rico, Francisco (2001). «Retórica y traducción. 'Nóesis' y 'Poéesis' en la traducción del texto literario», in Pierre-Yves Raccah eta Belén Saiz Noed (arg.). *Lenguas, Literatura y traducción. Aproximaciones teóricas*, Madril: Arrecife.
- Doležel, Lubomír (1986). «Semiotics of Literary Communication», *Strumenti Critici* 50, n.s., I, 1, 5.-48. or.
- (1990). *Occidental Poetics. Tradition and Progress*, Lincoln: University of Nebraska Press.
- Eco, Umberto (2003). *Dire quasi la stessa cosa. Esperienze di traduzione*, Milan: Bompiani.
- García Berrio, Antonio (1979). «Lingüística, literaridad/poeticidad (Gramática, Pragmática, Texto)», 1616. *Anuario de la Sociedad Española de Literatura general y Comparada* 2, 125.-170. or.
- (1978-1980). «Construcción textual en los sonetos de Lope de Vega: tipología del macrocomponente sintáctico», *Revista de Filología Española* LX, 23.-157. or.
- Marías, Julián (1948). *La filosofía española actual*, Buenos Aires: Espasa Calpe Argentina, S.A.
- Schwab, Gabriele (2008). «Restricción y movilidad. Hacia la dinámica del contacto cultural en la literatura», in *Interculturales/Transliteraturas. Introducción y compilación de textos Amelia Sanz Cabrerizo (Grupo LEETHI)*, Madril: ARCO/LIBROS, S.L., 287. or.
- Venuti, Lawrence (1995). *The Translator's Invisibility*, Londres eta New York: Routledge.
- Welsch, Wolfgang (2008). «El camino hacia la sociedad transcultural», in *Interculturales/Transliteraturas. Introducción y compilación de textos Amelia Sanz Cabrerizo (Grupo LEETHI)*, Madril: ARCO/LIBROS, S.L., 287. or.
- Zavala, Iris M. (1991). *Unamuno y el pensamiento dialógico*, Bartzelona: Anthropos.

Resumen

El autor se ocupa en este artículo de la investigación de la traducción como medio fértil para el encuentro entre culturas diferentes. El estudio lo llevó a cabo dentro del marco de la labor traductora de literatura vasca contemporánea, tarea a la que se ha dedicado durante los últimos cinco años de ejercicio de esa actividad. Merced al proceso de traducción, tanto de la narrativa (Juanjo Olasagarre, Kirmen Uribe), como de la poesía vasca (Gabriel Aresti, Kirmen Uribe) y de libros de teoría de la literatura (Jon Kortazar), ha podido reflexionar sobre las peculiaridades de la transmisión de la cultura vasca a una cultura ajena, y sobre las dificultades que ello entraña.

Résumé

L'auteur de cet article analyse la traduction en tant que moyen de rencontre entre les diverses cultures. Il a réalisé cette étude dans le cadre de son travail de traducteur de littérature basque contemporaine, tâche à laquelle il s'est consacré ces cinq dernières années. Grâce à ce processus de traduction de récits (Juanjo Olasagarre, Kirmen Uribe), de poésie basque (Gabriel Aresti, Kirmen Uribe) ou encore de textes théoriques sur la littérature (Jon Kortazar), l'auteur a pu analyser les particularités de la transmission de la culture basque à une culture étrangère, ainsi que les difficultés de cette entreprise.

Abstract

The author of this article examines translation as a fertile meeting ground for different cultures. This researcher and translator carried out his study within the framework of the translation of contemporary Basque literature, a task to which he has dedicated himself for the last five years. Thanks to the process of translation, not only of narrative (Juanjo Olasagarre, Kirmen Uribe) and of Basque poetry (Gabriel Aresti, Kirmen Uribe), but also of books on literary theory (Jon Kortazar), he has had the opportunity to reflect on the peculiarities of the transmission of the Basque culture to a foreign culture, and on the difficulties entailed in that transmission.